# FORO SOZIAL IRAUNKORRARAREN AURKEZPENA

# PRESENTACIÓN DEL FORO SOCIAL PERMANENTE

Euskal Herrian Gatazkaren Konponbidea Sustatzeko Nazioarteko Aieteko Konferentziaren 5. urteurrenean

...

en el 5º aniversario de la Conferencia Internacional Para Promover la Resolución del Conflictio en el País Vasco de Aiete

Hitzartzeak | Intervenciones

2016ko urriaren 22an | 22 de octubre del 2016

## Peio Dufaut

Kaixo, eguerdion guztioi.

Gure zeregina sortu berria den Foro Sozial Iraunkorraren aurkezpena egitea izango da.

Urriaren 17an bost urte bete ziren Aiete martxan jarri zenetik.

2013an, Aieteko Nazioarteko Konferentziak diseinatutako ibilbide orria jarraikiz, lehen Foro Sozialean bildu ginen eta, bertan, lau ardatzen baitako hamabi gomendio onartu genituen.

Ardatz nagusiak hauek ziren: desegite eta desarme prozesu bat diseinatu, garatu eta bururaino eramatea; preso eta iheslarien itzultzea erraztea; giza eskubideak bultzatu eta bermatzea; eta egia eta memoria babestea iraganari zintzotasunez aurre egiteko eta etorkizuneko elkarbizitzareb oinarriak finkatzeko.

Lanerako ardatz hauetan oinarritutako hamabi gomendio zehatzekin hasi ginen lanean eta honaino heldu gara.

Bide honen errepasoa egiterakoan, bi gako nagusi azpimarratu nahi ditugu: batetik, denbora honetan guztian Aieteko ibilbide orriak jasandako alde anitzeko blokeoak, bereziki Estatu frantziar eta Estatu espainiarraren aldetik.

Alde anitzeko blokeo hauek bake prozesua ataka zailean jarri dutenik ezin uka.

Bagenekien, ordea, bidean oztopoak eta arazoak ugariak izango zirela eta soilik gizarte zibilaren funtsezko ekarpenaren bitartez lortuko genuela aurrera egitea.

Gaurko egunean, gizarte zibilaren ekarpena biderkatzeko premia azpimarratu nahi dugu. Gizarte zibilaren protagonismoa aldarrikatu nahi dugu ozen eta argi.

Foro Soziala osatzen dugunon iritziz, gizarte zibilari, gaur ikusten ari garen irudi anitzari jarraikiz, erritmoz aldatzea dagokio, bake prozesuan ahalik eta urrunena iristeko asmoz.

Horregatik hartu dugu Foro Sozial hau iraunkorra bilakatzeko erabakia.

Nous tenons à souligner, aujourd'hui plus que jamais, la nécessité de multiplier les contributions issues de la société civile. Nous souhaitons proclamer haut et fort le protagonisme de la société civile.

En tant que composantes du Forum Social, et en conformité avec la pluralité que nous représentons aujourd'hui, il nous semble devoir changer notre rythme pour aller le plus loin possible dans le processus de paix

C'est pourquoi nous avons décidé de rendre ce Forum social permanent.

Iraunkorrak ez du esan nahi gure ekimena sine die luzatu nahi dugula.

Iraunkorrak esan nahi du gure ekimenak bake iraunkorra lortzeko baliagarria izan behar duela, justizian oinarritutako bake iraunkorra lortzeko baliagarria, hain zuzen.

Eta iraunkorrak esan nahi du Foro Sozialaren bitartez, gizarte zibilaren icebergaren tontorra ikustetik, gizarte zibilaren multzo zabala bake prozesuari atxikiturik ikustera pasa nahi dugula. Alegia, ikusle izatetik bakegintzan aktore izatera pasa nahi dugu.

Izan ere, bake prozesuak ezin du bere zatirik handiena ur azpian ezkutatutako iceberg baten gisara egin bere bidea; askatu behar dira indarrak, eskutik lanean jarri eta honetarako guztirako plaza izan nahi du Foro Sozial Iraunkorrak.

Gaur, ahalegin honen bi argazki erakutsi nahi dizuegu, xumea oraindik nahi bada, baina esanguratsua, oso esanguratsua, egin nahi dugun bidea ezin hobeto erakusten duelako.

Lehen argazkia, aurrerantzean Foro Sozial Iraunkorrean parte hartuko duten kideen zerrendarekin egin dugu. Hauek dira sare honetan parte hartzea erabaki dugun erakundeak:

- ELA,
- Comisiones Obreras
- LAB,
- Esteilas,
- Bakea ta Duintasuna,
- Sare,
- Baketik,
- Etxerat,
- Gernika Batzordea,
- Uharan,
- Bake Bidean,
- Egiari Zor,
- Ahotsak,
- Antxeta Irratia.

Eta hauek dira izen propioz sarean parte hartzea erabaki duten pertsonak:

- Nazario de Oleaga
- Aitzpea Leizaola
- Iñaki Lasagabaster
- Iñaki Gonzalez Murua

- Iñaki Olalde
- Fernando Vaquerizo
- José Luis Uriz
- Andoni Serrano
- Fernando Armendariz
- Begoña Uharte Azpiroz
- Carlos Aitor Yuste
- Juanje Soria
- Roberto Oiz
- Txemi Perez

Hamalau erakunde eta 14 pertsona. Etapa berri honi begira hasiera bikaina dela iruditzen zaigu. Sarean funtzionatzea bilatzen dugu, horizontalean, dinamika bateratzaile bultzatu, guztiok eroso sentitzeko moduan eta iraunkorki akordioan sakonduz. Izan ere, herri honetan ezberdinen arteko elkarrizketa gehiago behar baitugu.

14 organisations et 14 personnes. C'est un début magnifique pour cette nouvelle étape. Nous travaillons à créer un réseau horizontal, inclusif et au sein duquel tout le monde se sent à son aise. Un réseau qui est dans la recherche permanente d'accords car dans ce pays, nous avons besoin de dialogue entre différents.

Lau ardatzen inguruan arituko diren lau batzordetan antolatzea erabaki dugu. Eta, gainera, zeharkako hiru ardatz jarriko ditugu martxan: "Hitza desarmatuz", "Beste esperientzietatik ikasiz" eta "Gatazkaren ondorioak emakumeen artean eta bake prozesuari begirako hauen ekarpena"

Jakitun gara sare honetan hainbat aktore eta sentsibilitate falta direla. Zerrenda hau zabaltzeko asmoa eta borondatea agertu nahi dugu gaurkoan eta gonbidapena luzatu

bidenabar bake prozesuan bere ekarpena egiteko prest dagoen orori: behar zaituztegu gurekin batera lanean.

Zein da iragarri dizuegun bigarren argazkia? Oraintxe ikusiko duzue pantaila nagusian. Foro Sozial Iraunkorrak bere irudi berria erakutsi nahi dizue, aurrerantzean gure ekimenaren berri emateko baliatuko duguna. Aurretik gure logoak gaztelera, euskara eta ingelesa biltzen bazituen, aurrerantzean frantsesa ere txertatu dugu, bakegintzarako gure zelaia Euskal  Herria dela ondo irudikatzeko.

Gaur, hemen, bakerako agenda propio eta independientea eraikitzeko gure asmoa agertzen dizuegu eta, horri begira, bakegintzarako hizkera berri bat osatu beharko dugu, hitza behin betirako desarmatuz.

Manifestamos hoy aqui, nuestra voluntad de construir una agenda propia independiente de paz y para ello deberemos construir un nuevo lenguaje de paz que desarme la palabra.

Foro Sozial Iraunkorrarentzat aurrerantzean funtsezkoa izango den ideiarekin amaitu nahi genuke gure atala: edozein oztoporen gainetik jauzi egitea dagokigu, konponbidean ahalik eta urrunen iristeko. Eta zeregin honetan motorra gizarte zibila izango da.

Milesker.

## Susana Egia

Kaixo, eguerdi on guztioi, buenos días a todxs.

Nuestro trabajo ahora será la presentación del recién creado Foro Social Permanente.

El 17 de octubre se cumplieron 5 años de la puesta en marcha de Aiete.

En 2013, siguiendo la hoja de ruta diseñada por la Conferencia Internacional de Aiete, nos reunimos en el primer Foro Social y, entonces, se recogieron 12 recomendaciones basadas en 4 ejes.

Esos 4 ejes fueron estos: diseñar un proceso de desarme y desaparición, desarrollarlo y llevarl a cabo; facilitar la vuelta de lxs presxs y refugiadxs; impulsar y garantizar los derechos humanos; y proteger la verdad y la memoria para enfrentar el pasado con franqueza y establecer las bases para la convivencia futura.

Empezamos a trabajar con las 12 recomendaciones basadas en estos ejes y hemos llegado hasta hoy.

Haciendo un repaso de este camino, nos gustaría subrayar 2 claves principales: por un lado, el multi bloqueo sufrido por la hoja de ruta de Aiete, especialmente por parte de los estados francés y español.

No podemos negar que este bloqueo múltiple ha dejado el proceso de paz en una situación complicada.

Pero sabíamos que los obstáculos y problemas con los que nos íbamos a encontrar iban a ser muchos y que sólo conseguiríamos salir adelante con la aportación esencial de la sociedad civil.

En el día de hoy queremos recalcar la necesidad de multiplicar esa aportación de la sociedad civil. Queremos reivindicar alto y claro el protagonismo de la sociedad civil.

En opinión de lxs que formamos parte del Foro Social, a la sociedad civil, en concordancia con la foto plural que vemos hoy, le corresponde cambiar de ritmo, con intención de llegar lo más lejos posible con el proceso de paz.

Por eso hemos tomado la decisión de convertir en permanente este Foro Social.

Permanente no quiere decir que queramos alargar nuestra iniciativa sine die.

Permanente quiere decir que nuestra iniciativa debe servir para conseguir una paz permanente, para conseguir una paz permanente basada en la justicia, precisamente.

Y permanente quiere decir que, mediante el Foro Social, queremos pasar de ver la punta del iceberg de la sociedad civil a ver a la mayoría de esa misma sociedad unirse al proceso de paz. Es decir, queremos pasar de ser simples actores a ser parte activa en el proceso de pacificación.

De hecho, el proceso de paz no puede seguir su camino ocultándose bajo las aguas como si fuese un iceberg;  deben liberarse las fuerzas, trabajar codo con codo y el Foro Social Permanente quiere ser el lugar para todo ello.

Hoy queremos enseñaros 2 fotos de ese esfuerzo, humilde todavía, pero muy significativo, porque representa muy bien el camino que queremos seguir.

La primera foto la completaremos con la lista de compañerxs que formarán parte del Foro Social Permanente. Estos son las organizaciones que han decidido tomar parte en esta red:

- ELA,
- Comisiones Obreras,
- LAB,
- Steilas,
- Paz con Dignidad,
- Sare,
- Baketik,
- Etxerat,
- Gernika Batzordea,
- Uharan,
- Bake Bidean,
- Egiari Zor,
- Ahotsak,
- Antxeta Irratia.

Y estas son las personas que han decidido unirse a la red:

- Nazario de Oleaga,
- Aitzpea Leizaola,
- Iñaki Lasagabaster,
- Iñaki Gonzalez Murua,
- Iñaki Olalde,
- Fernando Vaquerizo,
- José Luis Uriz,

- Andoni Serrano,
- Fernando Armendariz,
- Begoña Uharte Azpiroz,
- Carlos Aitor Yuste,
- Juanje Soria,
- Roberto Oiz,
- Txemi Perez.

14 entidades y 14 personas. Es un comienzo magnifico para esta nueva etapa. Buscamos un funcionamiento de red, horizontal, inclusivo, el que todos y todas nos sentimos comodas. Que busque el acuerdo permanente. Porque en este pais necesitamos mas dialogo entre diferentes.

Hemos decidido organizarnos en cuatro comisiones en torno a cada uno de los cuatro ejes. Y ademas pondremos en marcha tres ejes transversales: “Desarmar la palabra”, “Aprender de otras experiencias y “Consecuencias del conflicto entre las mujeres y aportación de estas al proceso de paz”.

Somos conscientes de que faltan todavía muchas sensibilidades y actores en esta red. Queremos dejar clara nuestra intención y voluntad de abrir estas listas y aprovechar para invitar a todx aquel/aquella que esté dispuestx a hacer su aportación: os necesitamos a nuestro lado trabajando.

¿Cuál es la segunda foto que os queremos anunciar? La veréis ahora en la pantalla principal. El Foro Social Permanente os quiere enseñar su nueva imagen, que utilizaremos a partir de ahora para informar sobre nuestra iniciativa. Si antes nuestro logo incluía el euskera, castellano e inglés, ahora también hemos incluido el francés para representar claramente que nuestro campo de pacificación es Euskal Herria.

Manifestamos hoy aquí, nuestra voluntad de construir una agenda propia independiente de paz y para ello deberemos construir un nuevo lenguaje de paz que desarme la palabra.

Querríamos terminar nuestra parte con la idea que para el Foro Social Permanente será básica a partir de ahora: nos toca saltar por encima de cualquier obstáculo, para llegar lejos en la solución. Y en esta tarea el motor será la sociedad civil.

Milesker, muchas gracias.

## Agus Hernan, coordinador del Foro Social Permanente

La solución vendrá de los acuerdos entre las instituciones, la sociedad civil y la Comisión de Verificación y Monitoreo

El pasado 30 de enero se desarrolló en Gernika el III. Foro Social sobre el tema «Diseñar, desarrollar y culminar un proceso de desmantelamiento y desarme».

El 28 de febrero en Donostia presentamos las conclusiones del Foro y manifestamos la intención de iniciar una ronda de reuniones con los Gobiernos Vasco y Navarro, los partidos políticos y numerosos agentes de la sociedad civil, entre los que debemos destacar a los sindicatos representados hoy aquí por sus respectivos secretarios generales.

El Foro Social Permanente quiere expresar su incredulidad ante la actitud obstruccionista, de los Gobiernos Español y Francés. Rompiendo con todos los estándares internacionales aplicados en casos similares, hoy podemos afirmar que ambos gobiernos no desean acometer el desarme de una manera ordenada.

El Foro Social Permanente quiere destacar y agradecer la tarea realizada por la Comisión Internacional de Verificación que, como es sabido, ha sido realizada en condiciones muy difíciles.

Finalmente, entre lo que hemos denominado «bloqueos múltiples», debemos constatar la incapacidad de los partidos políticos de sentarse a dialogar hasta llegar a acuerdos. Frente a esta hecho queremos subrayar que en Iparralde, como lo demuestra el «Acuerdo de Baiona» de 2014, si ha existido una mayor capacidad de diálogo entre diferentes en torno a este tema.

El Foro Social Permanente entiende que, ante esta realidad de bloqueos múltiples, se debe acometer la fase final que debe desembocar lo antes posible en un escenario de desarme completo mediante la destrucción de los arsenales.

Entendemos que, cinco años después del fin de su actividad armada, ETA debe emprender un proceso de desarme con la sociedad vasca, sus agentes institucionales, políticos, sindicales y sociales con un resultado: acometer un desarme de carácter total y definitivo.

Para que este desarme pueda desarrollarse en condiciones adecuadas, es necesaria, de una parte garantías de seguridad para los intervinientes en este proceso y, de otra, la participación y colaboración de los responsables institucionales, partidos políticos, agentes de la sociedad civil y comunidad internacional.

El Foro Social Permanente ha venido trabajando los últimos 8 meses con el objetivo de facilitar este objetivo.

Con este fin en el plano institucional hemos mantenido reuniones al más alto nivel con el Gobierno Vasco y el Gobierno de Nafarroa y con la Presidenta del Parlamento de Navarra.

Hemos solicitado reuniones con todos, e insisto, con TODOS los partidos políticos. En la Comunidad Autónoma Vasca hemos mantenido reuniones con los siguientes partidos: PNV, Podemos, Euskal Herria Bildu, Sortu, Partido Socialista de Euskadi y Ezker Anitza-Izquierda Unida.

En Navarra con Geroa Bai, Podemos, Euskal Herria Bildu, Ezkerra- Izquierda y Partido Socialista de Navarra.

Además, hemos solicitado a través del juez una reunión con el señor David Pla, delegado de ETA para la resolución, encarcelado en la cárcel de París.

Al mismo tiempo nos hemos reunido con las siguientes organizaciones de la sociedad civil: ELA, LAB, Comisiones Obreras, STEILAS, ESK, EHNE, Sare, Etxerat, Baketik, Ahotsak, Uharan, Egiari Zor, Gernika Gogoratuz, Gernika Batzordea, Hitz&Hitz, Bilgune Feminista y las ONG Mundu Bat y Paz con Dignidad, además de con numerosas personas a título individual.

Un pequeño paréntesis para informaros que, en Iparralde, debido al debate sobre la creación de la nueva institución, esta ronda de contactos se iniciará en enero. Sin embargo, allí una parte del trabajo ya está hecho. Tenemos como base la Declaración de Baiona de 2014 que ya abordaba esta cuestión.

De esta extensa ronda de reuniones hemos obtenido las siguientes conclusiones:

La primera: en las reuniones realizadas constatamos que hay acuerdo entre todos los actores en avanzar en un proceso de desarme completo mediante la destrucción de los arsenales de ETA.

El segundo: este proceso se debe dar en un plazo razonable y con un calendario acordado.

Y finalmente: que este proceso debe ser internacionalmente verificado y dé seguridad de su realización al conjunto de la sociedad vasca y sus instituciones así como a los Estados involucrados.

Hemos constatado así mismo por parte de los distintos actores institucionales, políticos y sociales, un reconocimiento a la Comisión Internacional de Verificación.

Aunque existen puntos de disensión, el Foro Social Permanente tiene una labor de facilitador de acuerdos y le corresponde subrayar los puntos de encuentro.

Desde aquí, queremos agradeceros personalmente, a todas a todos, porque la mayoría nos acompañáis hoy en esta simbólica sala en Aiete.

Os agradecemos por la magnífica acogida que nos habéis dado y vuestro respeto y reconocimiento al Foro Social Permanente en la labor de acompañamiento que puede desarrollar la sociedad civil junto con instituciones y partidos políticos.

Desde la sociedad civil estamos convencidos que la solución solo vendrá desde una articulación de acuerdos entre los tres ejes de una triangulación: las instituciones, la sociedad civil y la labor de la Comisión de Verificación y Monitoreo.

EMPLAZAMIENTO A LOS PARLAMENTARIOS DE LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA, NAVARRA Y ELECTOS DE IPARRALDE

Señoras y señores parlamentarios y electos de Iparralde. Responsables de sus partidos políticos.

Tienen un tiempo definido. El que se inició ayer con la nueva legislatura en el Parlamento de Vitoria junto al nuevo ciclo que se iniciará en enero 2017 en Iparralde con la creación de la nueva mancomunidad. Y la fecha de fin está situada en la primavera 2019 con la disolución del Parlamento Navarro.

Ambas fechas determinan los plazos para encarar un proceso que permita encauzar los diferentes aspectos de resolución de las consecuencias del conflicto.

Hoy, en este simbólico lugar, les emplazamos a actuar con responsabilidad política, buscando más lo que les une que lo que les separa.

La sociedad civil organizada, y en especial las entidades y personas reunidas en el Foro Social Permanente, les garantizamos nuestro apoyo si deciden iniciar un camino integrador y definitivo.

No tenemos tiempo que perder. Dialoguen. Hasta el amanecer si es necesario. Las generaciones futuras, nuestras hijas e hijos, no nos lo perdonarían.

Nosotros esta mañana hemos constituido el Foro Social Permanente.

Pongámonos todos, ustedes y nosotras, a trabajar desde hoy, aquí, en este simbólico lugar.

## Aitzpea Leizaola

Joan den urtarrilaren 30ean Armagabatzea eta armen desegitea diseinatu, garatu eta gauzatzea ardatz zuen III Foro Soziala ospatu genuen Gernikan.

2016ko Otsailaren 28, Donostian, Foroan bildutako ondorioak aurkeztu genituen eta bilera erronda bat egiteko asmoaren berri eman genuen, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Foru gobernuarekin, partidu politiko bai eta gizarte zibileko hainbat eragilerekin -azken horien artean, azpimarratzekoa da gaur hemen diren sindikatuetako ordezkaritza, bertaratutako idazkari nagusien bidez.

Foro Sozial Iraunkorrak Espainiako eta Frantziako Gobernuen jarrera oztopatzaileen aurrean harridura adierazi nahi du. Antzeko kasuetan erabili diren nazioarte mailako estandar guztiak hautsi dituzte bi gobernuek. Armagabatze ordenatu bat egikaritzeko asmorik ez dutela baiezta dezakegu.

Foro Sozial Iraunkorrak Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak baldintza ikaragarri zailetan egindako lana azpimarratu eta eskertu nahi.

Azkenik, blokeo askotarikoak deitu ditugunen artean, aipatzekoa da adostasuna lortu arte mahaian esertzeko partidu politikoen gaitasun falta. Honen aurrean, Iparraldean, 2014ko “Baionako Akordiak” erakusten duen moduan, desberdinen artean elkarrizketarako gaitasun handiagoa egon dela frogatu ahal izan dugu.

Askotariko blokeo hauen aurrean, Foro Sozial Iraunkorraren iritziz azken faseari ekiteko garaia da, lehen bai lehen erabateko armagabetze egoera batera igaro ahal izateko armategien suntsiketa bidez.

ETAk jarduera armatua utziz geroztik bost urte igaro diren honetan, ETAk euskal gizartearekiko, eragile instituzional, politiko, sindikal eta sozialekiko armagabetze prozesu bat abiatu behar duela deritzogu, helburu batekin: erabateko eta behin behitiko armagabetzea gauzatzea.

Armagabetzea baldintza egokietan gauza dadin, alde batetik prozesuan parte hartzen duten guztientzat segurtasun bermeak ezinbestekoak dira, eta bestetik arduradun instituzionalen, partidu politikoen zein gizarte zibileko eragileen bai eta nazioarteko komunitatearen parte hartzea ezinbestekoak dira ere.

Cinq ans après la fin de son activité armée, ETA doit entreprendre un processus de désarmement avec la société basque, ses acteurs institutionnels, politiques syndicaux et sociaux en vue d'un résultat: s'accorder sur un désarmement intégral et définitif

Afin que ce désarmement puisse se dérouler dans des conditions adéquates, il est nécessaire, d'une part que la sécurité des intervenants soit garantie dans ce processus, et, d'autre part que les responsables institutionnels, les partis politiques, les acteurs de la société civile et de la communauté internationale participent et collaborent.

Helburu hau egikaritze bidean eman ditu Foro Sozial Iraunkorrak lanean azken zortzi hilabeteak.

Horretarako maila goreneko bilerak izan ditugu arlo instituzionalean Eusko Jaurlaritza eta Nafar gobernuarekin, bai eta Nafarroako Parlamentuko Presidentearekin.

Partidu politiko guztiei, eta azpimarratzen dut, GUZTIEI, bilera eskariak luzatu dizkiegu. Euskal Autonomia Erkidegoan, parlamentuan ordezkaritza duten honako partiduekin bildu gara: EAJ, Podemos, Euskal Herria Bildu, Sortu, Euskadiko Partidu Sozialista eta Ezker Anitza-Izquierda Unida.

Nafarroan, Geroa Bai, Podemos, Euskal Herria Bildu, Ezkerra-Izquierda eta Nafarroako Partido Sozialistarekin bildu gara.

Honez gain, Pariseko presondegian dagoen armagabetzerako ETAko delegatua den David Plarekin bilera eskatua dugu epailearen bitartez.

Era berean, gizarte zibileko honako erakundeekin bildu gara: ELA, LAB, Comisiones Obreras, STEILAS, ESK, EHNE, Sare, Etxerat, Baketik, Ahotsak, Uharan, Egiari Zor, Gernika Gogoratuz, Gernika Batzordea, Hitz&Hitz, Bilgune Feminista eta Mundu Bat eta Bakea eta duintasuna Gobernuz Kanpoko Erkundeekin, bai eta norbanako mailan, hainbat pertsonekin ere.

Ipar Euskal Herrian, instituzio berriaren eraketaren eztabaida dela eta, harreman errondari 2017ko urtarrilean emango zaio hasiera. Honez gero, baina, lanaren zati bat egina dago jada bertan: 2014ko Baionako Deklarazioa dugu oinarrian.

Bilera sorta zabal honetatik honako ondorioak plazaratu nahi ditugu:

Lehenik, bai bileratan, zein jasotako ekarpen idatzietan, eragile guztien aldetik ETAren armategien suntsiketa bidezko erabateko armagabetze prozesuan aurrera egiteko adostasuna dagoela egiaztatu ahal izan dugu.

Bigarrenik: prozesua arrazoizko epe eta adostutako egutegi baten baitan gauzatu behar da.

Eta azkenik, prozesuak nazioarteko egiaztapena beharrezkoa du eta gauzatzen ari denaren ziurtasuna eman behar zaio Euskal gizarte osoari, euskal instituzioei eta parte diren estatuei.

Eragile instituzionalen, politikoen eta sozialen aldetik Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekiko onespena dagoela ikusi ahal izan dugu.

Desadostasun puntuak dauden arren, Foro Sozial Iraunkorrak akordioak erraztea du helburu, eta hortaz, bategite esparruak azpimarratzea dagokio.

Hemendik, pertsonalki eskerrak eman nahi dizkizuegu bertaratu zareten guztioi, gehiengoak gurekin bat egin duzuelako gaur Aieteko areto sinboliko honetan.

Egin diguzuen harrera ederra eskertzen dizuegu. Eskerrak ematen dizkizuegu halaber, gizarte zibilak, erakunde eta partidu politikoekin batera, egin ditzakeen ekarpen lanetan Foro Sozial Iraunkorrari adierazitako errespetu eta aitortzagatik.

Gizarte zibiletik konbentzituta gaude honako triangulazioaren hiru ardatzen arteko akordioetatik soilik etorriko dela irtenbidea: instituzioak, gizarte zibila eta Egiaztatze eta Jarraipen Batzordearen jarduna.

Jaun andere parlamentariak, Ipar Euskal Herriko hautetsiak, partidu politikoetako arduradunak.

Denbora tarte mugatua duzue: Gasteizko Parlamentuaren legegintzaldia, atzo abiatu zena, 2017ko urtarrilean Ipar Euskal Herrian elkargo berriaren osaketak abiaraziko duen aro berriarekin bat egiten duena. Amaiera data duen tartea da, Nafarroako Parlamentuaren disoluzioarekin bukatuko dena 2019ko udaberrian.

Gatazkaren ondorioen konponketaren arlo desberdinak bideratzen lagun ditzakeen prozesuan aurrera egiteko epeak markatzen dituzte bi datok.

Gaur, toki sinboliko honetan, erantzunkizun politikoz jardutea eskatzen dizuegu, batzen zaituztena banatzen zaituztenaren gainetik jarriz.

Gizarte zibil antolatuak, eta bereziki Foro Sozial Iraunkorrean bildutako entitateek eta norbanakoek, gure babesa ziurtatzen dizuegu bide bateratzaile eta behin betikoa abian jartzea erabakiz gero.

Ez dugu galtzeko denborarik. Hitz egin ezazue, arren. Goizalderarte, hala behar izanez gero. Etorkizuneko belaunaldiek, gure seme-alabek ez ligukete barkatuko.

Goizean Foro Sozial Iraunkorra eratu berri dugu.

Gaurtik hasita, hementxe bertatik, guztiok, zuek eta guk, ekin diezaiogun lanari.